

Literatura Asteak saio ederra eskaini digu bertsoen bat-bateko itzulpengintzaz

2007/05/08

Euskaraz ez dakitenez ere gozatu dezakete, bai, bertsolarien jardueraz. Horixe zen **Xabier Paya**, **Andoni Egaña** eta **Onintza Enbeita** bertsolarien helburua Literatura Astea ireki duen lehen saio honetan. Eta ederki frogatu dute horrela izan daitekeela, bat-bateko erakustaldi batean. Aurrekaririk bazen, jakina, 2005ean BECen jokaturako final hura, adibidez, non euskara ez ezik, gaztelania, ingelesa eta frantsesa ere erabili baitziren, azken hauek itzulpenetan.

Saioak bi zati izan ditu. Lehenbizikoan **Xabi Paya** bertsolari eta itzultzaile esperientzia handikoak (Sardinian eta Kuban ere izan da bertsoak bat-batean itzultzen) aletu ditu zer itzulpen mota erabil daitezkeen ahozko jarduerarako: **parafrasia**, **lexikoa eta literala**, eta bakoitzaren ezaugarriak. Geroago azaldu du zergatik bertsoa itzultzeak dituen arrisku gehiago, eta zertan diren zailtasun horiek.

Bigarren zatia hasi da bat-bateko erakustaldi batekin. **Andoni Egañak** eta **Onintza Enbeitak** bertsoak euskaraz kantatu ahala, Xabi Payak gaztelaniara itzuli baititu, eta emaitza pantaila handi batean bistaratu. Ondoren, hiru bertsolarien arteko **dibertimendua** etorri da, era askoko kantu erak erabilita. Saio umoretsua izan da, eta denok ere barre franko egin dugu. Hasiera bikaina.

